

EUSKAL MITOLOGIA:

PERTSONAIAK

Idatzi irudi bakoitzaren azpian dagokion izena

TARTALO

Begi bakarreko izaki gaiztoa da.
Haitzuloetan bizi da,
eta gazteak harrapatu eta irensten ditu.



GALTZAGORRIAK

Iratxoak dira. Oso tamaina txikikoak.
Nagusiek agintzen dieten guztia egiten dute.
Oso langileak dira.



MAIRI

Indar handia duen emakumezko jeinua da.
Euskal herrian bizi izan zen gizaki zaharrena
omen da.



SORGINAK

Jendea sendatzeko basa belarrak
eta fruituak biltzen zituzten.
Akelarre izeneko bilerak
egiten zituzten gauez.



LAMIAK

Goitik emakume ederrak dira eta behetik ahate, ahutz edo arrain itxura dute.

Urrezko orrazi batez orrazten dute ilea, eta gizakiak erotu arte liluratzten ditu.



BASAJAUN


Basoko gizaki basatia da.

Altua eta indartsua da, eta belaunetarainoko ilea du. Artaldeak eta artzainak babesten ditu.



MAIRU

Euskal mitologiaren arabera, trikuharri edo harrespil asko eraiki zituzten. Gizon erraldoiak direla esaten da, eta Ekialdeko eremuetako elezaharretan aipatzen dira bereziki.



ZEZENGORRI

Haitzuloetan bizi den izaki bat da. Behi edo zezen forma du, eta Mariren bizilekuak babesten ditu



MAIDE

Gaueko jenio bat da.
Etxeko tximiniatik sartzen da, gauez,
bertakoek utzi dizkioten opariak jasotzeko.
Gizaki itxura du, eta elezahar askotan,
Laminen lagun gisa agertzen da.



EATE

Ekaitzaren, suaren, uhaldeen eta haizete
bortitzen jeinua da.
Baso batean sute bat sortzen denean edo
eraikin bat erretzen denean, haren bizarrak dira
sugar uhindunak, zerurako bidean,
han bizi baita bera.



HERENSUGE

Dragoi gaizto bat da, eta suge handi baten forma du.
Haitzuloetan bizi da, eta gosea asetzeko baino
ez da bertatik irteten.
Hegan egiten duenean, suaren arrastoa
uzten du, eta izugarritzko hotsa ateratzen du.



AKERBELTZ

Aker baten forma du.
Akerbeltz arduratzen da bere kontura dauden
animaliak babesteaz.
Sorginek gurtzen dute, eta hark gidatzen ditu
Akelarreak.

